

EUSKO TRENBIDEAK/FERROCARRILES VASCOS, S.A. (Euskotren)

Sozietatearen izena

Sociedad Pública Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A. (E.T./FF.VV.)

IFK

A48136550

Izaera

Sozietate publikoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Partida murriztaileak dituen balioespena.

Sorrera

Sozietatea 1982ko ekainaren 25ean emandako eskritura publiko bidez eratu zen. Honen bidez onartu zen sorrera: [Jaurlaritzaren 105/1982 DEKRETUA, 1982ko maiatzaren 24koa, "Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A." sozietate publikoa sortzea eta haren estatutuak onartzea erabakitzen duena.](#)

Sail-atxikipena

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

JESN

4910 Bidaiarien hiriarteko trenbide-garraioa.

Helburu soziala

Sozietatearen helburua trenbidez garraioak egiteko zerbitzuak ematea da, bidaiariei zein salgaiei dagokienez; eta horren barruan izango dira: gurgildun materiala mantentzea, eta trenbideko garraioari lorturik diren edo haren osagarriak diren jarduerak eta zerbitzuak, bereziki [abuztuaren 25eko 2488/1978 Dekretuaz](#) eta [abenduaeren 18ko 3/1979 Lege Organikoaz](#) Euskal Autonomia Erkidegoari esleitutako lineetakoak, hala nola egoki dakizkiokeen beste guztiak.

Era berean, Gobernu Kontseiluak 2006an onartutako estatutuen aldaketa partzialari jarraikiz, kontuan hartuta [67/2006 DEKRETUA, martxoaren 21ekoa, "Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A." Sozietate Publikoa sortzeko eta haren estatutuak onartzeko Dekretua hirugarrenez aldatzeko dena](#), Sozietateak mota guztietako garraio-zerbitzuak egin ahal izango ditu trenbidez, interes orokorreko trenbide-sarean dauden lineetan.

Jarduera nagusiaren osagarri, jarduera hauek ere sartzan dira sozietatearen helburuan:

- Bidaiariei zein salgaiei dagokienez, errepide, funikular, tranbia edo kablez garraio-zerbitzuak ematea, eta horren barruan izango dira: gurgildun materiala mantentzea, eta aipatu garraioari loturik diren edo haren osagarriak diren jarduerak eta zerbitzuak.
- Aurreko idatz-zatietan aipatutakoez besteko baliabideen bitartez, bidaiariei zein salgaiei dagokienez, garraio-zerbitzuak ematea.

- Eraikuntzari, kontserbazioari eta ekipamenduari nahiz teknologiari eta haren baliabideei dagokienez aholkuak ematea eta azterlanak egitea, trenbide-azpiegiturak ordenatu eta ustiatzea, bai eta, bidaiariei zein salgaiei dagokienez, garraio-zerbitzua ematearen gaineko zuzendaritza, ikuskapena eta kontrol teknikoa gauzatzea ere.
- Esleitzen zaizkion eta garraioarekin zerikusia duten titularitate publikoko museoak kudeatzea.

Sailkapena kontabilitate nazionalen

Eskualde Administrazioiko Herri Administrazioak

Kapital soziala

72.394.670 €

Kapital sozialaren osaera

EAEko Administrazio Orokorra: % 100

Administrazio Kontseilua

Administrazio Kontseiluari dagokio sozietatea kudeatzea eta ordezkatzea. Honako hauek dira 2013ko ekitaldiko urteko kontuak egiten dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

Antonio Aiz Salazar jauna presidentea.

M. Almudena Ruiz de Angulo del Campo andrea

Manuel Leza Olaizola jauna

Miren Izaskun Iriarte Irureta andrea

Hernando Lacalle Edeso jauna

Josu Sagastagoitia Monasterio jauna

Joseba Mikel Andrés Uriarte jauna

Francisco Javier Vigiola Martín jauna

José María Negro Agromayor jauna

EAEko Sektore Publikoak izendatuta: % 100

2013ko aurrekontuak

www.euskadi.eus

2013ko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta aurrekontuen likidazioa

[Ikuskaritza-txostena, 2013ko ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, Kapital- eta ustiapen-aurrekontuen likidazioa, eta Programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoria.](#)

2013ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

| | |
|-----------------------------------|---------------|
| Aktiboa guztira | 311.054.325 € |
| Ondare garbia | 258.902.845 € |
| Negozio-kopuruen zenbateko garbia | 24.581.407 € |
| Batez besteko langile-kopurua | 871 |

Sozietatearen helbidea

Atxuri, 6 – 48006 Bilbo (Bizkaia)

Web gunea

www.euskotren.es